

IKASLAN Gipuzkoako euskara Bilgunea

2004ko urtarrilean sortu zen Ikaslan Gipuzkoako Euskara Bilgunea, Bergarako Migel Altuna GLHBI n egindako bilera batean, Eibarko Berritzegunearen zonaldeko ikastetxeek hala proposatuta.

Lanbide Heziketaren berezko arazoez behar bezala jarduteko astirik ez zen izaten, hainbatetan, Guneo ohiko normalkuntza-bileretan, eta Lanbide Heziketako hainbat ikastetxek pentsatu zuten egokiagoa izan zitekeela bilerak egitea problema bertsuak zituzten ikastetxeen artean, hots, LHkoen artean, hartara problemak lasaiago azaldu, esperientziak eta informazioa elkarri trukatu eta irtenbideak, ahal zen neurrian, komunean bilatzeko.

Hori guztia bideratze aldera, Ikaslan Gipuzkoara biltzen diren ikastetxeei deialdia zabaldu, eta Gipuzkoako ikastetxe publikoen Euskara Bilgunea sortzea proposatu zuten, LHko ikastetxe guztien partaidetza izateko.

Helburu horrekin sortu zen bilgunea duela ia hiru urte; hau da, normalkuntza-kontuetan, eguneroko jardunean Lanbide Heziketako ikastetxeek topatzen dituzten oztopo eta problemen inguruan ausnarketa sakonagoa egiteko bilgune bat sortzeko, Hizkuntza Normalkuntzako Guneen osagarri moduan.

Baina partaideen kezka eta ikastetxeetako egoerak ez ziren erabat berdinak (biltzen direnen artean, badira B-D eredu ikastetxeak, eskola-bizitza euskaraz egiten dutenak, A eredu sendoa dutenak, eta baita hizkuntza-normalkuntzan hasia ez denik ere).

Heziketa-zikloen hizkuntza-egoera hobetzeko ahalegina Buruntzaldean

Ez da inor txundituta uzteko modukoa Buruntzaldean heziketa-zikloetako hizkuntza egoera hobetzeko egindako ahalegina. Guk egindako bakarra da, ordea, eta guretzako egin dugun onena da.

Udaletako teknikariak hasi ginen 2001. urtean gai honi heltzen. Irakaskuntzaren alorrean egiten guren lana berbideratzea komeni zitzaigula eta euskarazko irakaskuntzaren eskaintza gainerako zikloetan "normalizatu" samarra edo genuela eta heziketa-zikloei heltzeko garaia iritsi zitzaigula erabaki genuen, bai gaztetxoekin ikasketahizkuntzari segida egokia ematearren, bai lan-munduarekin zituzten loturei heldulekuak bilatzeko ere.

Horrela, Berritzeguneko HNTa eta Heziketa Zikloetako ikasmaterialerako koordinatzailea lagun genituela, eskualdeko ikastetxeei deia egin genien eta "nola hobetu heziketa-zikloetako hizkuntza-egoera?" galdera aztergai izango zuen batzorde bat (ikasturtero behin edo bitan bilduko dena) osatzea proposatu genien.

Harrezkero, egitasmo hori, bere apaltasunean, ikasturtero gauzatu da eta hiru lan-ildo praktiko izan ditu. Lan-ildo horiek, ikastetxeek beraiek beren kasa edo Jaurlaritzak berak helburu berarekin dituen egitasmo indartsuago batzuen osagarri besterik ez dira izan (Irla, euskarazko taldeak sortzeko ratioak, Lanbide Ekimena...).

Guk landutako hiru lan-ildotatik lehena euskarazko materiala prestatzeko egitasmoa da. Eta egitasmo horren bidez, Buruntzaldeko ikastetxeek euskarazko taldeetan aritzeko behar dituzten materialak itzultzen edo euskaraz sortutakoak zuzentzen ditugu. Beti ere, Hezikuntza Sailak sustatutako Lanbide Ekimena programan aurreikusitako gabe badaude eta beren praktikotasuna frogatu ondoren. Ez dira asko, baina 3.600 orrialde inguru itzuli edo zuzendu ditugu.

Bigarren lan-ildo, ikasleek euskarazko aukerak eska ditzaten suspertzeko egitasmoa da. Urtero egin dugun kanpaina bat eskualdeko

Horiek horrela, lan-ildo nagusiak adostu eta biltzen hasi ginen, urtean bizpahiru bilera eginez. Hauek izan dira gai nagusiak:

- **Ikastetxeko hizkuntza-proiektua**
- **Hizkuntza-normalkuntza planaren atal nagusiak**
- **Euskararen trataera ikastetxean**
- **Eta proiektu hauek ere:**
- **Dokumentuen elkartrukea**
- **Euskarazko materialen inbentarioa moduluko**

Horretaz gain, hainbat hitzaldi eta bisita egin da:

- **Euskara-plana: motibazioa eta erabilera sustatzeko estrategiak. Elhuyar Fundazioa**
- **Euskararen erabilera lan-munduan bultzatzeko planak. Emun Koop.E.**
- **Fagorreko euskara-plana.Fagor Arrasate**
- **Elhuyar Fundazioa. Bisita**
- **Fagor Arrasate. Bisita**
- **Emun Lana euskalduntzeko Kooperatiba. Bisita**

Azkenik, hauek dira bilgunearen orain arteko partaideak:

- **Elgoibar BHI**
- **IMH**
- **Migel Altuna GLHBI**
- **Don Bosco GLHBI**
- **Hernani BHI**
- **Uni Eibar-Ermua BHI**
- **Tolosaldea GLHBI**
- **Easo GLHBI**
- **Bidasoa GLHBI**
- **Donostiako Eraikuntza LHI**
- **Paper Eskola BTI**
- **Lasarte-Urribil BHI**
- **Zuazola-Larraña BHI**
- **Monte Albertia I**
- **Aretxabaleta GLHBI**
- **Mutriku BHI**

Amaitzeko, ohar bat. Bilgune irekia da, eta partaide berririk balego, ongi etorria litzateke gurea, hiruhilekoan behin, asteazketan, IMHn egiten ditugun bileretara.

Xabier Aramendi

Bilgunearen koordinatzailea

gazteen artean euskaraz ikasteko dituzten eskaintzak gerturatzu alde batetik, eta, bestetik, ikastetxeen arteko koordinazio-lana bultzatu dugu euskaraz ikasten ari diren gazteei heziketa-zikloak ere euskaraz ikasten jarrai dezaten. Ez da seguruenik guk egindako lanarengatik izango, baina A eredu 18 puntu gutxitu da bost urtean, "B" eredu 13 puntu hazi da eta D eredu, berriz, 5.

Hirugarren lan-ildo, euskarazko heziketa-zikloak lan-munduarekin uztartzeko egitasmoa da. Urrats gutxi eman ditugu oraindik atal honetan, baina hasita gaude zerbait egiten.

Heziketa-zikloetako praktikekin hasi berriak bagara ere, lortu dugu mahai baten inguruan jartzea ikastetxeetako praktiketako arduradunak eta euskara-planak dituzten bederatzi enpresetako ordezkariak. Ez dugu askorik egin, baina "praktiken mapa" osatu dugu, praktikak euskaraz egiteko aukerak dituzten Buruntzaldeko enpresak identifikatzu.

Enpresa horietako planak egiten ari diren aholkularitza-enpresek beren protokoloetan gai hau txertatzeko konpromisoa hartu dute, eta, ikastetxeek, berriz, enprekin praktikak lotzeko unean hitz egin beharke gaiei artean hizkuntzarena ere sartzea erabaki dute eta enpresetara egiten dituzten bisitetan ere, ikasleak euskaldunak direnean, bisitaldia euskaraz izatea eskatzea ere beren asmoen artean sartu dute.

Ez da asko gure ahalegin honek eman duena. Nonbait gehiago eman duen egitasmorik baldin bada, guk gustura jasoko genuke.

Iñaki Arruti

Lasarte-Oriako Udaleko euskarako zerbitzuko arduraduna